

LITERATURA. 'Berbalauaren kulunkan' izenburua ezarri dio bildumari apailatzaileak

Eusebio Erkiagaren prosa lanak bildu ditu Andres Urrutiak bi liburukitan

Itzulpenak, antzerki lanak, ipuinak, artikulua eta saio laburrak dira batez ere bildutakoak


Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Eusebio Erkiaga lekeitiar idazlearen (1912-1993) prosa lanak bilduz eman berri dituzte argitara Labayru Ikastegiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak, Andres Urrutia euskaltzainak *Berbalauaren kulunkan. Prosa lanak* izenburupean apailatuak. Urrutiak aspaldidanik izan du harremana Erkiaga zenaren sendiarekin; gustuko idazle ez ezik, adiskide ere izan zuen Urrutiak Erkiaga.

«Haren berbalauan eta idaztankeran ikusten dut gorpuzturik egunotan mendebaldeko euskalgintzan premiazkoen ditugun osagaiak», adierazi dio EGUNKARIARI Urrutiak: «bateko, herriko hizkera, Erkiagaren kasuan Lekeitioko euskara aberats eta joria; besteko, goi mailakoa, literaturaren hegaletan harro ibiltzeko modukoa dena».

Rufo Atxurrearengandik jasotako laguntza eskertu nahi du Urrutiak: «Erkiagaren adiskide izateaz batera, aparteko ahalegina egin zuen Erkiagaren lanak, han-hemenka argitaratu eta barreiaturik zeudenak, bildu eta batera emateko. Lehen saio hura Erkiagaren omenaldirako prestatu zuen 1988. urtean. Hark ondutako bidetik ibili naiz ni neu. Esan gabe doa nireari ekiteko ezinbesteko izan zaidala Erkiaga-Telleria familiaren laguntza ere».

Erkiaga batez ere olerki eta eleberriei esker da ezaguna, bai-



XOUSE SIMAL
Eusebio Erkiaga, Bizkaiko Diputazioak 1992an eskaini zion omenaldian.

ANDRES URRUTIA

Euskaltzain osoa

«Egungo mendebaldeko euskalgintzan premiazkoen ditugun osagaiak ikusten ditut Erkiagaren berbalauan»

na balio handikoak dira bi liburukietan bildutako prosa lanak ere, Urrutiaren ustez. «Azpimarratzekoa da, adibidez, antzerki-

lana, oso-osorik eskaintzen dena eta, neurri batean, argitaratu gabe zegoena», adierazi du. «Bada, bestetik ere, itzulpengintza, eta bertara berreskuratu da Platonen *Parmenides* testua, berak euskaratua. Jakingarri oso, zer esanik ez, Lekeitioko historian gerraurreko autuak, Erkiagak *Euzkadi* egunkarian plazaratu zituenak. Hor dira, azkenez ere, haren hamaikatxo artikulua eta saio labur, garai hartako aldizkarietan sakabanatuak, argitalpen honetan modu bateratu eta sailkatuan datozenak».

«Erkiagak bere garaia gainditu zuela uste dut», dio Urrutiak, «hizkuntzaren ikuspegitik euskal idazle klasikotzat har dezakegulako. Euskalgintza zehatz baten fruitu da Erkiaga, hain zuzen ere, gerra aurreko berpizte-girotik gudu osteko katakunba eta ilunpeko aldietera igaro zena. Bi horien arteko estekadura dakar».

Euskarari «ukitu jaso» eskaintzeko ahaleginean beti

Horretaz gain, Erkiagak diktaduraren ondorengo euskalgintzan parte hartu zuela ekarri du gogora Urrutiak, «betiere, kosta ahala kosta, euskarari ukitu jaso eskainiz».

Erkiagarengana hurreratu diren ikertzaileak asko badira ere —«Kortazar, Sarriugarte eta Mielgo, besteak beste», oroitu du—, «bada oraindik Erkiagari buruz jarduteko gairik, behar den besteko jorraketa izan ez duenik», Urrutiaren ustez. «Berbarako, gerra osteko Bizkaiko euskalgintzan Erkiagak izan zuen eragina, erbesteko eta barruko euskalgintzaren uz-tarduran. Gaur argiberritan ikusten diren idazleen artean, hainbaten garaikidea da Erkiaga. Horrexeatik eskaini da bi liburuetan, bestelako Erkiaga hori, antzerkian, itzulpengintzan, ipuingintzan, artikulugintzan bere burua garatu zuena, lumaren eta gogoaren bidez».

LABURRAN



EGUNKARIA
Javi Cillero Goiriastuena.

ANTZERKIA

Javi Cillerok eta Kepa Gallegok irabazi dute Kafe Bilbao antzerki laburreko II. sariketa

Kafe Bilbao Antzerki Laburreko II. sariaren irabazleen izenak plazaratu zituzten atzo. Euskarazko atalean, Javier Cillero eta Kepa Gallegorentzat izan da saria, *ex aequo*, eta gaztelaniazkoa, berriz, Kepa Ibarrek eskuratu du. Cillero, aurrean, Euskadi Sarietako finalista izan da, haur literaturaren atalean, eta Kepa Gallego aktore lanetan ibili izan da Euskal Herrian eta atzerrian.

ZINEMA

Karel Reisz zendu da, 'free cinema' britainiarraren sortzaile eta eragilea

60ko hamarkadan Europako zinema garaikidea irauli zuen *free cinema* mugimendua sortu, abiarazi eta zuzendu zuen Karel Reisz txekiarra (Ostrava, 1926) zendu zen iragan astelehenean, haren emazteak jakinarazi duenez. Artista irudimentsu, geldiezin eta urduria sei hilabetez egon da gaixo. Zinemagintzari ekin aurretik, naziengandik ihes egitea izan zuen eginbehar, bere gurasoak gas ganbera batean hil baitzituzten.

MUSIKA

Kurtag hirukotea ariko da bihar, Miramongo Eguerdia zikloaren egitarauaren barruan

Anne Soren, Juan Navarro eta Javier Perez de Azpeitiak osatutako Kurtag hirukoteak biola, klarinete eta pianoaren soinuaren edertasuna zabalduko dute bihar Miramongo Eguerdien emanaldian. Mozart, Bruch, Schuman eta Kurtagenen musika eskainiko du hirukoteak. Soren eta Navarro Euskadiko orkestra sinfonikoko bakar-lariak dira, eta Perez de Azpetia, berriz, ohiko lankidea.

Euskadiko Liburu Azoka

HONDARRIBIKO 8. EUSKAL LIBURU eta DISKO AZOKA

San Pedro kalea - Azaroaren 27tik abenduaren 1a arte.



- Euskal Nobedadeak
- Euskal Disko berriak
- Bideoak
- %10eko beherapenak

BIZI IRAKURRIZ.